

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxeba Lasa Iriarte

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Errenterian jaioa, aita Lezokoa zuen eta ama Oiartzungoa. 1965ean San Pedrorra ezkondu zen; emaztea Herrerakoa zuen (baina gurao ataundarrak zituen). Bi seme-alaba izan zituzten (alaba 16 urterekin hil zen) eta biak ibili ziren San Pedroko ikastolan. Guraso bezala ikastolaren aldeko lanetan ibili ziren, besteak beste Lizeoa sortzeko dirua biltzen. Ikastolari buruzko elkarrizketa egin genion. Didaka semea ere elkarrizketatu genuen.

Zintak

PAS-086

- **Proiektua:** Badiako ikastola txikiak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-07-17
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Francoren bisitetan, aita kartzelara

- **Erref:** PAS-086/003
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Errenterian, Madalenako ermitaren parean bizi ziren. Mozkortzen zenean, aitak "Gora Euskadi Askatuta" bezalako lemak esaten zituenenez, Francok herria bisitatzen zuen bakoitzean kartzelan sartzen zuten, istilurik ez sortzeko.

2. San Pedroko lehenengo ikastola

- **Erref:** PAS-086/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:02:49. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

San Pedrorra bizitzera joan zenean, euskara gutxi egiten zen han. Lehenengo ikastola Pilartxo Arratibelen etxean izan zen, gero beste lokal batzuetan, gero asiloan...

3. Ibon Fresnedo ikastolako lehendakaria

- **Erref:** PAS-086/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:07:18. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Joxeba elektrizista izan da eta San Pedroko ikastolan lantxoak egiten zituen debalde. Gurasoak beti zeuden laguntzeko prest. Ibon Fresnedo izan zen San Pedroko ikastolako zuzendaria.

4. Joxe Etxebarria abade euskalduna

- **Erref:** PAS-086/010
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:09:08. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Elizarekin oso harreman ona zuten ikastolakoek eta Joxe Etxebarria abadeak asko lagundu zien. Semeari Didaka izena jarri nahi zioten eta abadeak ez zien trabarik jarri.</p>

5. Pasaiaiko ikastola klandestinoak: andereñoak

- **Erref:** PAS-086/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolan askotan klandestinoki ibiltzen ziren. Ikuskaritza zetorrela jakiten zutenean, haur batzuk etxera bidaltzen zituzten, tituludun gabeko irakasleak ateratzen zituzten... Pilartxok adibidez ez zuen titulurik. Beste andereño batzuk aipatzen ditu.

6. Euskararen alde lanean

- **Erref:** PAS-086/020

- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:17:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Paco Iriartek euskal dantzak erakusten zituen Pasaian. Joxeba beti aritu da euskararen alde lanean, udaletxera joaten baimen bila... Andres Aramendi zen alkate lizeoa sortu zenean.

7. Lizeoa legalitatearen barruan sortu zen

- **Erref:** PAS-086/021
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:29. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Baimenik gabeko ekimenak egiten zituzten ikastolatik. Joxebak argi zuen seme-alabak ikastolara eramango zituela, nahiz eta klandestinoa izan. Lizeoa modu ofizialean sortu zen, legalitatearen barruan. Ibon Fresnedo izan zen lehendakaria.</p>

8. Gaztelutxo elkarte

- **Erref:** PAS-086/023
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gaztelutxo baserriaren lurretan lizeoa eraikitzea erabaki zen. Gaztelutxo elkarte sortu zen horretarako. Simon Garinek asko lagundu zuen lizeoaren sorreran.</p>

9. Lizeoaren garraio-sistema

- **Erref:** PAS-086/025
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:20:57. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Lizeoa sortzeko egindako lanarekin oso konforme dago. Garraio sistema oso ona zuten.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com